

Herri Aldizkaria Otamotz

□ 35 zumarragar eta 20 urretxuar izan ziren herri epailerako aukeratuak urrian egin zen zozketan. Zerrenda hau hala ere, behin behinekoa da askok bere ezintasuna azalduz errekurtsua jarri baitute. 65 urte gorakoek udaletxeetako idazkarien bitartez jarri dute errekurtsua eta hauek epaimahai lanetik libre geratu direla jakin dugu. Herri epaileak arlo penaleko epaiketetan bakarrik hartuko du parte, eta epaiketa hauek datorren urtean hasiko dira. Epaiketa bakoitzerako izendatutako epai-mahaikideek ezin izango dute ezetzik eman, 25.000 eta 250.000 pezeta bitarteko isuna ordaindu nahi ez badute behintzat. Epaimahaiari bederatzi lagun arituko dira eta guztiek eman beharko dute botoa derrigorrez; epaitzen diharduten ustezko gaizkilea erruduna edo errugabea den, derrigorrez esan beharko dute.

□ Azken 38 urtetan Legazpiko musika bandako zuzendaria izan den **Ramon Esnaola** urretxuarrak zuzendaritza lanak


uztea erabaki du, eta hainbeste urtetako lana eskertu nahian, azaroaren 24an omenaldi hunkigarria jaso zuen Legazpin. Omenaldian, Legazpiko musika bandak, txistulari bandak, Legazpi abesbatzak eta Urretxu eta Zumarragako Goiargi abesbatzek hartu zuten parte. Txistulariek Ramon Esnaolak konposatutako doinuak jo zituzten eta bandak, urretxuarrak konposatutako *Legazpi* izeneko pieza jo zuen estreineko aldiz. Ramon Esnaola 10 urterekin hasi zen musika munduan, egun, 79 ditu eta urte hauetan guztietan izugarrizko lana egin du Zumarraga eta Urretxun, musika alorrean eta oraindik ere bere laguntza eskaintzeko prest dago beti.

□ Azaroaren 13an Urretxuko Udala, UZTAK bertara aurkeztutako mozioa onartu eta intsumiso izendatu zen. PSE-EEko zinegotziak izan ziren erabaki honen aurka azaldu ziren zinegotzi bakarrak. Hauen iritziz soldaduzka egitea herritar bakoitzaren aukera izan behar da eta ez udalak hartu beharreko erabakia.



Azaroaren 27tik abenduaren 3ra bitartean, HIESaren astea ospatu zen Zumarraga eta Urretxun. Mahainguruak, antzerkiak eta hitzaldiez gain, abenduaren 1ean, HIESaren aurkako giza-katea egin zen bi herriotan eta bertan, Roman Sodupek, Gipuzkoako diputatu Nagusiak, Jose Julian Irizar errepidetako diputatuak, Maria Jesus Aranburuk, giza ekintzetako zuzendariak, Maximo Goikoetxeak eta bi herrietako agintariek hartu zuten parte

QUEHALZHOEN
Zintzo
Mintzo
ELIARTEA


Kafe
ARANTZA URREBIZKAI MENDIOLA
Arantza
Egunero txigortua
Txigorlekua: S. Esnaola, 34, etxeazpia.
© 72 13 48 Etxekoa: 72 48 46
ZUMARRAGA 20700

JAKA
KRISTALDEGIA
Ipeñarrieta, 18
20700 URRETXU © 72 14 13

 **JAKIN**
Idazmakinak eta
kalkulagailuak
Labeaga, 12 © 72 36 08 20700 URRETXU

URRETXU, MINERALTZALEEN ELKARGUNE

Jabier Aguado: "Ez da gutxi txikitako zaletasun batetik bizi ahal izatea."

Nola ulertzen duzu mineralogia?

JABIER AGUADO: Bilduma-zaletasunaren inguruan txikitatik sartu nintzen aitak eraginda, dena den aukera izan nuenean mineralogia serioski hartu nuen.

Bizi ahal daiteke mineraletatik?

J.: Hasierako zaletasun hori nire bizimodu bilakatu da eta ez da gutxi gustukoa duzun zaletasun batetik bizi ahal izatea.

Non lortzen dituzu mineralak?

J.: 1984. urtetik profesional gisa nabil eta honek hainbat leku desberdin ezagutzeko aukera ematen dit: Brasil, Paraguai, Estatu Batuak... Herrialde hauetako merkatuetan zenbait mineral erosten dut hemen saltzeko.

Esango al zeniguke Aste Mineralogikokoaren jatorria?

J.: Urretxun zegoen museo mineralogikoa suspertzeko, orain 8 urte egiten hasi zen. Gaur egun, nabaria da ekintza honek duen indarra herriko jendearengan. Garai hartan museoari indar berezi bat ematea premiazkoa zen, egun museoa ekintza mineralogiko guztien motorra izatea lortu dugularik.


Zein asmorekin datoz bildumazaleak?

J.: Falta zaien piezaren bat lortzeko datoz batipat, salerosketa eta truke gune bat bilakatzen delarik. Askotan, salmentetatik lortutako dirua beste piezaren bat eskuratzeko erabiliko dute. Zenbaitzuk irabaziak soilik lortzeko etorriko dira, baina guk

hasieratik garbi uzten dugu bilkura batera datozela. Horretaz gain irabaziak lortzen badituzte hobeto!

Nolakoa ikusten duzu jendearen harrera?

J.: Geroz eta positi-boagoa, garrantzitsuena nire ustez informazioa izatea da eta badirudi jendeak baduela. Euskal Herriko jendeaz aparte kanpoko jendea ere gerturatzen da.



baina garestia izatez aparte zaila da lortzea.

Azkenik Jabier, kontatuko al zeniguke azken uneko albisteren bat?

J.: Bai, azken bolada honetan ideia bat darabilt buruan, urtarrilean Arizonako basamortura joateko asmoa dut. Bertara, urtarrila-otsaila bitartean Estatu Batuetako jendea hurbiltzen da eta merkatu antzekoa eratzen dute denetarik salduz: arropa, irrati zaharrak, mineralak...

Urretxu gune geografiko egoki batean dagoela kontutan izanik, Arizonan egindakoaren antzeko zerbait egitea gustatuko litzaidake. Udan, zenbait jende turismo mineralogikoa egiteko zaletasuna du eta Urretxu hauen elkargune bilakatzea interesgarria dela iruditzen zait.

Idea hau Kultur Departamenduari azaldu diot eta oraindik ez dut erantzunik jaso. Egokia litzateke Urretxu eta zonaldean mugimendu apur bat sortzeko.

Gauza hauetarako Urretxuk gune geografikoa egokian kokatuta dago

Nolakoa da antolakuntza lana?

J.: Gauza guztiek ondo lotuta egon behar dute, gauzak ezin dira azken unerako utzi. Lortutako emaitzaren atzean lan ordu ugari dago.

Non lortzen dituzu mineralak?

J.: Asteburuetan lagunekin batera hainbat erorketetara goaz, hauetan ezuste ugariekin topatzen garela. Irteera hauek, leku desberdinak ezagutzeaz gain, hauen gune historikoa, gastronomia ... ezagutzeko aukera ematen digute honek aberastasun kultural bat suposatuz.

Zein mineral eskuratzeko gustatuko litzazuke?

J.: Kristalizaturiko urre pieza bat,

Argazki Estudioa
Argazki eta bideogintza
Ipeñarrieta, 20 & 72 23 19 URRETXU

MASTER - Hezkor
Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!
Prezio eta modeloetan aukera benetan aparta!
Urdaneta Hiribidea, 5 © 72 41 31
20700 ZUMARRAGA

LIBURUEN DENDA
GANBARA
Labeaga, 52 Tel. eta Faxe: 72 50 45
20700 URRETXU

SANTA LUTZI EGUNA

Nahiz bertan nahiz kanpoan izan, Zumarragako eta Urretxuko guztioi, eta inguruko herrietako hainbat eta hainbati, abendua hitza entzun bezain laster Santa Lutzi eguna datorkigu burura oroitzapenez eta bizipenez beterik.

Santa Lutzi eguna bizitzeko era desberdinak daudenez Santa Lutzi egun asko dagoela esan behar da. Lehendabizi, ganadu ferriara saltzera edo erostera datorrena aipatuko genuke. Hau Urdaneta kalean eta, batez ere, goiz partean ibiliko da kalean gora kalean behera urtez urte bakanagoak diren moxalei eta begira, salneurriak galdetuz eta hala gertatuz gero, tratuan, zarata handirik gabe egindako tratuan. Beharbada zintzarren bat erosiko du eta bazkaldu ondoren, laster hartuko du etxerako bidea. Baserritik bizi, edo behintzat inguruko baserrietan jaiota-koentzat ere abenduaren 13a egun bere-zia izango da. Batzuek bueltaska bat eginda konformatu beharko dira, baina beste batzuk urteroko irteeratxo egitera, hots, egun pasa, etorriko dira. Goizean abereak, barazkiak, oiloak, kapoiak, tresneria (betikoa eta azkeneko aurrerakuntzak) ikusi, herritar batzuekin topo egin, tartekoren bat badaukate beraien etxean edo bestela



taberna batean bazkari ederra egin, montekristoa piztu, herri kirolak ikusi, atxurren bat edo, mantaren bat edo zerbait erosi eta gustura etxeratuko dira. Datozen gabonetarako despentsa prestatzeko asmotan erosketak egingo dituzten etxekoandreak ere izango dira. Ez dakit nongo barnetegiko euskara ikasleak ere euskara praktikatzeko, eta hemengo giro berezia ezagutzeko asmoz etorriko dira. Hauek segur aski, taloa txistorrarekin jango dute. Eta saltzaileak, turroia, ardoa, gazta, ezitia, eta artisauak, eta rifak saltzen eta ez

dakit zer zozketatzen..., eta lapurrak, eta saltzaileak... eta jendea... eta jendea... gure bi herriok saltzaileez, erosleez, jendez gainezka.

Argi dago Santa Lutzi eguna benetan bizi dugun eta bizirik dagoen, eta horregatik aldatu eta aldatzen ari den eguna dela.

Garai batean ganadu ferriak, batez ere moxalen ferriak, mendian, jendea bizi ez zen lekuetan izaten ziren. Ezkioko Anduaga haraneko Santa Lutzi baselizaren ondoan ere bazen horrelako feria bat. Gipuzkoako juntek jendea bizi ez zen lekuetan feria egitea debekatzen zuen akordio batean oinarrituz. Urretxuk ganadu feria sortzeko baimena eskatu zuen eta baita baimena lortu ere 1727. urtean. Handik aurrera, eta hasiera-hasieratik makina bat liskar izan zen Urretxu eta Zumarragaren artean, feria Urretxu-rena izan arren, Zumarragan ere izaten zelako. Zumarragak gero eta indar gehiago hartu zuen, azkenean, mende honetako berrogeita hamargarren hamarkada inguruan ganadu feria bereganatu zuelarik. Gaur egunean bi udalen artean antolatzen da Santa Lutzi eguna, hasieran ganadu feria zena, gaur egunean ganadu feria baina batez ere azoka dela esan dezakegu, bi herriotako biztanleontzat urteko egunik bereziena eta politena zalantzarik gabe.



Ura guztion eskura!

S. Esnaola 34, etxeazpia
20700 ZUMARRAGA

© 72 04 23



MAPFRE

Aseguru etxea

S. Esnaola, 6 • © 72 20 00 - Fax: 72 24 00
20700 - ZUMARRAGA



Mutua General de Seguros

Iparragirre, 11-etxeazpia
20700 URRETXU

© 72 25 99



ILLARGI, E.A. okindegia

© 72 02 11 - Fax: 72 04 11

Azkoitirako bidea, z/g 20700 URRETXU

Munch

Barne jantziak - Lencería


Legazpi, 9 © 72 43 58 ZUMARRAGA
San Martín, 18 © 42 42 14 DONOSTIA

Ez al da gabonetan gehiegi kontsumitzen?



Maite San Miguel: 65 urte.

Asko kontsumitzen dela gauza nabaria da. Dena den egun bereziak dira eta denoi gustatzen zaigu egun hauek era berezian ospatzea.



Antxon Etxeberria: 36 urte.

Bai, gauza gehiegi erosten da baina ez da urteko garai bakarra Aste Santu eta udan ere asko gastatzen da. Normalean oporrak kontsumituz igarotzen ditugu.



Luis Alzelai: 54 urte.


Egoera nola dagoen ikusita gehiegi kontsumitzen da baina egun horiek horretarako aproposak direnez, jendeak beldurrik gabe erosten du.



Gurutze Medrano.

Behar baino gehiago kontsumitzen da. Hemendik ez hain urrun jende askok pasatzen duen gosea kontutan izango bagenu beharbada ez genuke axolagabekeriaz gastatuko. Ume txikiei ilusio bat ematea ondo deritzot baina hortik egiten ditugun gastuetara alde handia dago.

Zumarragarra, azken 10 urtetan Donostian bizi den arren ez du herriarekin harremanik galdu eta sarritan etortzen da lagunartera. Euskara ikasteko asmoz, akademia, barnetegi eta base-rriren batean egon den euskaldun berri honen esanetan, dudarik gabe Urretxu eta Zumarragako betiko lagunak izan dira, bere euskara irakaslerik onenak eta alor honetan laguntzarik gehien eskaini diotenak. Hizkuntza ondo barneratu duela argi dago, Martuteneko itzultzaile eskolan ikasi ondoren, Donostian, diputazioan itzultzaile moduan lanean ari baita azken hamar urtetan.



Lan hau oso gustuko duela ere, bistan dago, bere bizibidea izateaz gain, denbora libreko ordu asko eta asko itzultzeari eskaintzen baitizkio. Duela hilabete eskas, itzuli berri duen *Betiko loa* liburuaren aurkezpena egin da. Baina hau ez da hala ere, zumarragarra itzuli duen liburu bakarra, orain arte lau liburu euskaratu baititu. Itzultzailea, itzultzen ari denarekin identifikatu behar dela esan digu, liburuia ondo ulertu, pertsonaien izaera barneratu eta idazlearen gainontzeko lanak irakurri, hau da, ahalik eta informazio gehien jaso behar omen da lan on bat egiteko. Iñakik baldintza hauek betetzen dituela esan daiteke, *Hirugarren gizona* liburuarekin Bizkaiko diputazioak eskainitako saria irabazi baitzuen.

IÑAKI IBAÑEZ

EDURNE

*Punta puntako moda
Aukerarik hoberena
gizonezko eta gazteentzat*

Piedad, 18 © 72 14 17 ZUMARRAGA

Montajes e Instalaciones Electricas

HERCE
Electricistas M. E.

*Akumularoak gaueko
tarifaz!*

Denda: Ipeñarrieta 4 © 72 09 50

Tailerra: Mugitegi © 72 42 66

20700 URRETXU

BIONA


AROSATEGIA

© eta Faxe: 72 02 55

Erratzu, z/g 20700 URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:




kutxa fundazioa
fundación kutxa

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián

Ura, beharrezko dugun ondasuna

Denok dakigu gaur egun ura dugula ondasunik preziatuenetakoa eta denok jakin beharko genuke ura ez dela amaigabea. Biziaren naturak hain sinpleki adierazten dugun H₂O-n, uran, du bere oinarria, eta bizidun guztiek dugu haren beharra, baina badirudi gizon-emakumeok ez dugula, beste animalien antzera, uraren erabilpen zuzena ikasi. Jakinik naturaren eraldaketan gizakiak duela nagusitasuna gaur egun, erresponsabilitatea geurea da batipat



Azken egunetan, gure herriek asetzen duten urek, eskasian daudela jakin izan dugu. Inoiz baino euri gutxiago izan dugu aurten aspaldidanik, eta honek inguruko ibai-buru eta Barrendiola beragan ere ondorio handia izan du. Barrendiola eta Zaharren Egoitzaren eta Instituto gainean kokatzen den ur gordailua dira batipat bi herriotara iristen den uraren jatorria. Baina berez, ura Aizkorriko mendi ibarretatik dator eta transbasatu egiten da. Barrendiolatik datozen urek arazketa edo depurazio tratamendu oso bat jasaten duten bitartean beste bietan depuradora mugikorren bidez tratamendu minimo bat eskaintzen da.

Barrendiolako ura ordea, prozesu luzeago baten ondorio bezala iristen da etxeetara garbia. Orokorki urari presioa jaitsi ondoren tratamendu

kimiko bat aplikatzen zaio. Metal pisutsu eta materia organikoak koagulatu ondoren dekantagaluak dira hurrengo pausoa. Guzti hau urmahel batean pH egokia ezarri aurretik egiten da, hau lortuz gero kloroaren bidez tratamendu bakteriologiko bat egiten da.

Barrendiolako urek depurazio tratamendu sakona jasaten dute etxeratu aurretik

Uraren depurazio prozesuaren berri denok ez badugu ere, argi dagoena da, ura urtegietatik lortzeak eguraldiaren menpe jartzen gaituela. Ondorioz, euri gutxiko garaiek dira arriskutsuenak ur faltari dagokionez. Normalean uda izan ohi da lehorrena

baina aurten urria ere oso lehor joan zaigu eta honek ur kopuruari buruzko portzentai beldurgarriak jaurtiki ditu.

Uraren depurazio arloari dagokionez, gure herrietan badaude proiektu sendoak; depuradora, Urola ibaiko urez arduratzeko plana... Eta ezer ziur dagoenik ez dirudien arren datari buruz, datorren urte hasiera agertzen da hasteko data posible bezala.


Dagoeneko herritarrok, kontsumitzaile bezala, aski entzunak ditugu ur eskasia garaiko aholkuak: dutxa hartu bainatu orde, iturria irekita aski denerako izan soilik eta abar luze bat. Eta gure onerako, pausoz pauso jarraitzea komeni zaigu, gutxi kostatu baina asko balio baitu.

 **ARGIKI**
ARGIGINTZA
PARRA anaiak C.B.
S. Esnaola 6, etxeazpia
20700 ZUMARRAGA © 72 41 64

ZAPATAK

Otik 40 zenbakiraino
Eliz Kale, 7 © 72 54 39 20700 ZUMARRAGA

 **ARTYRO**
Markoketa lanak eta
Arte Ederretako tresnak
Ipeñarrieta, 4 © 72 14 20
20700 URRETXU



Bi paretarik egingo dituzte aurtengo Santa Lutzietan Unanue eta Arretzek atearen bestaldean dagoen pilotaleku berezi honetan. Tolosa bera ere penaz geratu omen da hain frontoi berritzailean jokatu ezin izan duelako.

Ze ote dago atearen atzealdean, pilotariak horren gogoko dutena?

NONDIK DATOR!

BERRIO-OTXOA

Berio-otxo edo Berriotxo euskal abizen honek jaso duen proiektzio oso handia da. Bere jatorria guztiz ezaguna da, hau da, Bizkaiko Elorrio herria. Etimologiari dagokionez, bi osagai desberdin ditu. Alde batetik Berrio hitza, Elorrioko erreka baten izena da, Ibaizabal ibaiaren isurkideetako bat. Bestalde, Otxoa denok ezagutzen dugun otsoari lotutakoa. Hasieran, abizen honek proiektzio handiko abizena dela aipatu dugu. Proiektzio honen arrazoia Valentin Berrio-otxo santuarengan datza. 1827ko otsailaren 14an Elorrioren jaioa, 24 urterekin apaiza izendatu zuten. 1856. urtean Filipinetan misiolari lanak egiteko asmoz joan zen. 1861. urtean Filipinetan ere hil zuten. Martiria, gaur egun Bizkaiko patroia dugu.

Bere familiako zenbait Berrio-otxoar Urretxun bizi dira.

KODE PENAL BERRIA

Azken aldi honetan kongresuak onartu eta martxan jarri izan dituen Kode Penal (KP) berria eta epaimahaiaren legea ezarriz, legegintza kamarak Legedi Penala eguneratu eta gizartera gerturatu nahi izan du. Hau ez da harritzekoa, aurreko KPa 1848. urtekoa zela kontutan hartzen badugu; orain arte egindako erreformak partzialak izan dira.

KP berrian delitu berriak jaso dira, eraso sexuala, arrazakeria eta manipulazio genetiko esate baterako. Bestetik, Nazio Batuen eta beste erakunde batzuen gomendioak direla eta, zigorrak oro har murriztuak izan dira.

Halere KP honek badu zenbait akats edo hutsune. Bi aipatzekotan, hauek kontutan hartuko genituzke:

- Euskal Herrian, gazteria mailan hain garrantzitsua den intsumisioa delitu mantentzea. Estatistikoki, erabaki pertsonal hori delitu gisa ez dela ikusten argi dago (ikus, *Objetores, insumisos: La juventud vasca ante la mili y el ejército*, 166. orr.). Ondorioz, KP batek gizarteak delitutzat hartzen dituen ekintzak zehaztu behar ditu, hau da, gizarteak delitu gisa kontutan hartzen dituen ekintzak KPeant isladatu, eta ez alderantziz.

- Delituegileen bergizarteratzea lortzeko bide berriak bideratzen ari dira (asteburuko atsedendialdiak ...) baina oraindik ez da inon zehaztu hau praktikan nola beteko den.

Beraz eta laburtuz, KP hau aurrekoa baina hobea da, baina era berean, hobe daiteke. Dena dela, zoritxarrez gizarteak beti legegintza kamara baino azkarrago doa.

Pablo Berrio-otxo Garcia
Asier Santillan Luzuriaga

ELIZ - KALE

L AUTOESKOLA

Bidezar, 11
20700 ZUMARRAGA © 72 04 52

TEKNOLOGIARIK BERRIENA ZURE ESKU

HEGIALDE AUTO


- KONPONKETAK OROKORREAN
- IBILGAILU SALMENTA
- GARBIKETA ZUBIA

ZERBITZU OFIZIALA



PEUGEOT

Mugitegi, 17 © 72 51 37 - URRETXU



RENEDO argazkiak

Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak

Labeaga 52-54 F 20700
URRETXU

© 72 56 82
72 22 92

FRAILE AHIZPAK: "ESKUBALOIAK HEZI EGITEN DU PERTSONA"

Itsaso eta Susana ahizpak gure bi herriek eman dituzten eskubaloi jokalarari onenak ditugu egundaino. Biak Urola eskubaloi taldean hasi ziren. Itsasok 23 urte ditu eta horietatik sei ohorezko mailan jokatu ditu. Hernanin lau urte, Arraten urtebete eta aurten berriz ere Hernakiko eskubaloi taldean ari da jokatzeko. Nahiz eta jada ez jokatu, Espainiako selekzioaren partaidea izandakoa da. Susanak ordea 17 urte ditu. Arrateko jokalaria da baina azken bi urteotan Espainiako Junior selekzioarekin bildua dago Getxon. Azken honekin eman genion hasiera elkarrizketari.



Zertan datza zehazki Getxoko proiektu hori?

ITSASO: Getxo Espainiako selekzioarekin bildurik gauden lekua da. Joko Olinpikoak prestatzeko helburuarekin sortu zen proiektua. Aurten gainera Europako Junior Txapelketa prestatzeko bideratua ere badago. Bi helburu hauek ongi prestatzeko, goizeko zazpietan jaiki, eskolara joan eta bazkaldu ondoren, ikasteko denbora ematen digute arratsaldetako zazpi t'erdia arte. Ordu honetan, egunero entrenamendua izaten dugu. Asteburuak ere Getxon igarotzen ditut; Gabonak, Aste Santua eta udako egun batzuk ditut bakarrik libre.

Pentsatu al duzue eskubaloiaz bizitzerik?

I: Nik dagoeneko ez. Gogoia eta denbora dudak bitartean jokatzeko jarraituko dut baina ez era profesionalan. Eskubaloian, kirol guztietan bezala, diruak markatzen du diferentzia. Valentzia aldean badira bi talde diru asko dutenak: bertako jokalariek profesionalak dira.

SUSANA: Egunean egunekoa bizi behar da eta momentuz ez dut inondik ere profesionalki eskubaloiak bizitzeko aukera planteatzen.

"Susanak partiduko 6 gol egiten ditu Espainiako selekzioarekin"

Emakumezkoen eskubaloiak diskriminaziorik jasotzen al du?

S eta I: Diskriminazioa emakumeek jokatzeko duten kirol gehienetan dago. Gizonezkoen eskubaloiak onspen gehiago du emakumezkoenak baino. Hau diru laguntzak emateko orduan ere asko nabari da. Hala ere, azkenaldian indar gehiago hartzen ari da, komunikabideetan leku gehiago izaten ari gara.

Noiz arte jarraituko duzue eskubaloian jokatzeko?

S: O.H.Oko 2. mailan hasi

nintzen jokatzeko eta noiz arte jarraituko dudak ez dakit. Lehen Gabonetan kontzentrazioan oporrak izango ditugula esan dizut baina justu orduan Euskadiko selekzioarekin beste kontzentrazio bat dut. Askotan nekagarria da baina gogoia dagoen bitartean jarraituko dut.

I: 30 urterekin jokatzeko duen jokalaririk asko dago, baita 34 urterekin ere. Gero eta esperientzia gehiago hobe. Eskubaloia beste mundu bat da, pertsona hezi egiten du. Ahaztuko ez dudak makina bat gertaera dut beraz, gogoia dudak bitartean, mundu honetan jarraituko dut.

Zein da bi ahizpetatik onena?

I: Onenak emanda nagoela uste dut. Urteak aurrera joan ahala entrenatzaile eta teknika hobeak daude. Ahizpa (Susana) ni baino askoz hobe da. Susanak partiduko 6 gol sartzen ditu Espainiako selekzioarekin.

S: Ez da horrenbesterako.

URRET XU
OPTIKA - GABINETE AUDIOPROTESIKOIA

Iparagirre, 1 © 72 59 68 20700- URRET XU

KALITATEA • TEKNIKA • ZERBITZUA • MODA

ITURGINTZA

LUIS ANGEL

Gure erakusketan zain gaituzu!

Deskargarako bidea, z/g. © eta Faxa: 72 54 59

HAURRENTZAKO ZINEMA

Igandetan arratsaldeko 4:30etan eta Pagoeta antzokian **Zintzo-Mintzok** antolatutako haurrentzako filmeak. Prezioa: 100 pezeta.

Abenduak 10: *Asterix Britainian.*

Abenduak 12: *Indiana Jones zorigaiztoko tenpluan.*

SANTA LUTZIAK

Abenduak 8: Afizionatu mailako **pilota partiduak** Ederrena pilotalekuan.

Abenduak 9: Arratsaldeko **7etan:** Txistulari kontzertua Beloki

ZORIONAK



Miren Balenziaga, 26 urte beteko ditu abenduaren 4an. Zer uste zenuen ahazturik geundela ala? Berandu baino seguru, urte askotarako!



Andoni Salas, 29 urte beteko ditu abenduaren 9an. Ixililik hengoen baina... harrapatu haugu! Zorionak zoroenak lan taldearen partetik.



Estitxu Sodupe, 21 urte beteko ditu abenduaren 20an. Eta zergatik ez 20 urte 21ean? A ze galdera sakona! Zorionak eta ondo pasa!!!



Iker Franco, 16 urte beteko ditu abenduaren 21ean. Zorionak zure lehengusu Joseba eta lagunuen partez.



Ekai Alkorta, 24 urte beteko ditu abenduaren 29an. Lasai, 28an ez dizugu ziririk sartuko. Honekin nahikoa da. Zure koadrilaren partez, Zorionak!



Mikel Aranburu, urtebete beteko du abenduaren 16an. Hi, ze BURU-tazio daukak 16rako? Zorionak Bittor, Manex eta Miren lehengusuen partetik.

pilotalekuan. Herri desberdinetako txistulariak, Irrintzi dantza taldeak, Goiargi eta Goiargi Txiki abesbatzek eta Metal boskoteak hartuko dute parte. Zuzendariak Oihane Toledo, Nerea Urkiola eta Iñigo Peñagarikano.

Gaueko 10:30etan: IX. bertso **jaialdia** Beloki pilotalekuan. Egaña, Peñagarikano, Euskitze eta Sebastian Lizaso arituko dira bertsoetan.

Abenduak 13: Abere eta nekazal tresnen feria, bi herrietako fruta eta barazkien lehiaketa eta bi udalek antolatutako kapoi eta oilaskoen lehiaketaz gain, Beloki pilotalekuan, XIII. **buzkantza lehiaketa**. Zubimusu plazan ardo lehiaketa.

Eguerdiko 12:30etan: Herri kirolak Ederrena pilotalekuan.

Arratsaldeko 16:30etan: Profesional mailako **pilota partiduak** Ederrena pilotalekuan.

Arratsaldeko 17:00etan: Idi

Probak Zumarragako enparantzan.

Arratsaldeko 18:30etik aurrera, Zumarraga eta Urretxuko kaleetan zehar Aldapa txaranga eta Iturbe, Estanga eta Elortza anaiak, trikitilariak arituko dira.

LEHIAKETA

Santa Lutzietako feria argazki lehiaketa. Abenduaren 13an bertan goizeko 9etatik 10:30era bitartean eman daiteke izena Urretxuko Kultur Etxean.

MUSIKA BANDA

Abenduak 24: Zumarragako musika bandaren Gabonetako kontzertua, eguerdiko 13:00etan Udaletxe azpian.

ERAKUSKETAK

Abenduaren 21etik 31ra: Kontxi Probanza zumarragarraren pintura erakusketa Itarte etxean.

URRETXUKO

ALDAPA